

# ATZERAPausorik EZ

## LGBTI+ PERTSONEN ESKUBIDEETAN

Atzerapausorik onartuko ez dugula ez da soilik lelo bat. Jarrera politiko argi bat da. Egiteko asko geratzen dela argi izanda ere, lortutako apurra ezabatzera etorri nahi duten indar ultrakontserbadore eta faxisten aurrean askatasunaren aldeko horma bat eraikitzeko konpromisoa da gurea. Hemen zeuden, badakigu, haiiek hil baitzuten Francis, baina haien gorrotoaren gainetik eraikitzen jarraitu dugu. Kalean eta instituzioetan.

Trans legeak lortu ditugu, edo LGBTI+ kontseilu munizipalak. Kaleak gureak egin ditugu eta Moio oroitzen duen plaka jarri. Eraso LGBTIfobikoen aurrean elkarta gara, oihukatu dugu eta bisexualitatea bizi dugula aldarrikatu dugu euskaraz. Hori eta askoz gehiago egin dugu, bizitu dugu, konpartitu dugu eta borrokatu.

Baina hemen dira, beldurrik gabe esaten eraiki dugun hori, garen hori desegingo dutela. Ez dagoela eskubide atzeraezinik, ez daukagula eskubiderik. Eta guk, Ekainaren 28 honetan, garena, lortu duguna harro defendatuko dugula esatera gatoz.

Iaz genioen bezala, honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... eraikitzeko konpromisoan berresten gara. Aldi berean, LGBTIQ+ mugimenduaren eta instituzioen arteko zubi eta elkarlanean sendotzeko, erabaki konpartituetarako bideak ezartzeko lan egingo dugu. Faxismoaren aurrean, bakoitzak beretik, eraikitzen jarraituko dugulako. Lege gehiago, baliabide gehiago, espazio gehiago.

Horregatik Lakuntzako Udalean LGBTIQ+ mugimenduaren eta instituzioaren arteko elkarlana sustatzeko eta bertatik, herriko dinamika ezartzeko konpromisoa hartzen dugu. Erronka konpartitua da aurrean duguna, eta bakoitzari dagokion arduratik eta espaziotik, LGBTI+ politikak eraikitzeko ezinbestekoa da honelako gunea.

Honetaz gain, gure herrian LGBTIQ+ mugimenduak izandako papera eta historia aitortzeko lan egingo dugu, haiengatik baikaude egun gauden tokian. Besteak beste, Ekainaren 10a, Erreenterian eraildako Francis Vadillo trabestia erail zuten eguna trans memoriaren egun izendatzea eskatzen dugu. Bere erailketak Euskal Herriko LGBTIQ+ mugimendua bultzatu zuen modu nabarmenean.

Amaitzeko, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBTI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizi garriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.

Beste konpromezuak:

- Ekainaren 28an hortzadarraren bandera jarriko dugu udaletxeko balkoian
- Sare soazialetan hartutako adierazpenaren berri emango dugu.

# NI UN PASO ATRAS EN LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS LGBTI+

---

Que no vamos a permitir un paso atrás no es sólo un lema. Es una posición política clara. Aun teniendo claro que queda mucho por hacer, el nuestro es el compromiso de construir un muro por la libertad frente a las fuerzas ultraconservadoras y fascistas que quieren venir a eliminar lo poco conseguido. Estaban aquí, lo sabemos, porque ellos mataron a Francis, pero hemos seguido construyendo por encima de su odio. En la calle y en las instituciones.

Hemos conseguido leyes trans, o consejos municipales LGBTI+. Hemos hecho nuestras las calles y hemos colocado la placa que recuerda a Moio. Nos hemos juntado ante los ataques LGTBIfóbicos, hemos gritado y hemos reivindicado en euskera que vivimos la bisexualidad. Hemos hecho eso y mucho más, hemos vivido, hemos compartido y luchado.

Pero aquí están, diciendo sin miedo que van a deshacer lo que hemos construido, lo que somos. Que no hay derechos irreversibles, que no tenemos derechos. Y nosotras, este 28 de Junio, venimos a decir que defenderemos orgullosas lo que somos y lo que hemos conseguido.

Como decíamos el año pasado, ante todo esto, organizarnos y luchar es imprescindible. En nuestro caso, desde las instituciones nos reafirmamos en el compromiso de construir políticas públicas integrales y sólidas, servicios basados en la perspectiva feminista, vías para establecer mecanismos de protección colectiva y autodefensa. Al mismo tiempo, trabajaremos para establecer cauces de decisión compartida para consolidar el puente y la colaboración entre el movimiento LGBTIQ+ y las instituciones. Porque frente al fascismo, cada uno desde su ámbito, seguiremos construyendo. Más leyes, más recursos, más espacio.

Es por ello que desde el Ayuntamiento de Lakuntza nos comprometemos a promover la colaboración entre el movimiento LGBTIQ+ y la institución. El reto compartido es el que tenemos por delante, y desde la responsabilidad y el espacio que a cada una le corresponde, este es un espacio imprescindible para construir políticas LGBTI+.

Además de esto, trabajaremos para reconocer el papel y la historia del movimiento LGBTIQ+ en nuestro país, ya que es gracias a éste que estamos donde estamos actualmente. Entre otras cosas, solicitamos que el 10 de Junio, fecha en la que fue asesinado el travesti Francis Vadillo en Erreenteria, sea declarado día de memoria trans. Su asesinato impulsó de forma notable el movimiento LGBTIQ+ en el País Vasco.

Para terminar, hacemos un llamamiento a participar en las iniciativas y movilizaciones que se han organizado en torno al 28 de Junio. Finalmente, queremos felicitar y agradecer a todos las personas y colectivos que están trabajando y luchando para que las vidas de las personas LGBTI+ sean vivibles, vuestro movimiento es nuestro orgullo.

Otros compromisos:

- El 28 de junio colocaremos la bandera arcoiris en el balcón del Ayuntamiento
- Se informará de la declaración tomada en las redes sociales.